

6. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure enpresak izango dituen kanalak elkartutakoa izango da. Hau da, aukera zabalak hartzen ditugu eta irabazi-marjina txikiagoak eskaintzen ditugu. Irabazi-marjina txikia izan arren, bezeroengana errazago ailegatuko gara.

Beste aldetik, bezeroen lehenengo arreta deitzeko, hainbat ekintza ditugu antolatuta:

1. Kalean zehar joango gara publizitatezko paperak banatzen: Durangaldeko leku desberdineko erdigunetan jarriko gara (Durango, Amorebieta-Etxano, Abadiño eta Elorrion).
2. Aurrekoan aipatutako lekuetan kartel batzuk jarriko ditugu zenbait tabernetan. (Nagorek diseinatutako kartelak)
3. Durangaldeko herrietako publizitate edo ekintzen pantailetan gure proiektua agertuko da. Hau da, Durangok eta Amorebietak herrietan gertatutako ekintzak publizitatezko eta ikusgarriak egiteko, pantaila batzuk dituzte. Horretarako, udaletxeari baimena eskatu eta lehengoko kartelak publizitate moduan jartzeko eskatuko dugu.
4. Azkenik, gure app-a *Gaztea* irratian, *Berria* egunkarian eta *Instagram* sare sozialean iragarriko dugu. Leku hauetan aplikazioa zabaltzea diru kopuru ez hain handia gastatzean eta aurreztean lagunduko digu. Horrela, ez dugu hainbeste diru gastatuko eta jendeari gure proiektuari buruzko berria ailegatuko zaie.



berria



Nola erabili aplikazioa?

Lehen esan dugun moduan, *App Store*-n eta *Play Store*-n aplikazioa dohainik eskuratzea posiblea da bakarrik jaisteko botoiari klik eginez. Horren ostean, formatu moderno eta errazean gure hiru aukera desberdinak agertuko dira bata bestearen alboan. Azkenik, haietako batean klik eginez eta beharrezko informazioa sartuz (Izen-abizenak, e-maila eta telefono zenbakia), bezeroarekin kontaktuan jarriko gara.